

ASTOA TRANSPORTS

Kaxerna baserrian bizi dira Pedro Lekuona Sagardia eta Balentina Zabala Etxeberria senar-emazteak. Pedro 1930ean jaio zen, eta Kaxernan bizi izan da harrezkerro. Balentina, berriz, 1936an jaio zen, Erreterian. 1965ean ezkondu ziren, eta Kaxernan bizi dira biak ordutik. Ezkonduz geroztik ari da Balentina astoa hartu eta esne-partitzen. Orain bakarra da Lezon asto gainean jaisten dituen esneak.

J.L. Asto berarekin edo aldatu egin dezue?

B. Aldatua.

J.L. 31 urtetan zenbat asto izan dituzue?

B. Hiru.

J.L. Orduan dirudienez 10 urtetan behin, astoa aldatu behar da?

B. Ez, noski ez.

J.L. Garai hartan zenbat balio zuen litro esneak?

B. Bost bat pezta, o.

J.L. Gaur egun zenbat balio du?

B. Oain, hamabost duro geyenbat.

J.L. Gaur egun jende gehienak Tetrabrik esnea eta fabrikako esnea edaten du. Zuen esnea edaten duen jendea gutxi da?

B. Oso gutxi Gurelesan esnia nayo izate ute. Hua rebajaturia izan baita, hua nayo izate ute. Baserriko esnia esate ute lodiya, fuertia ta gizendu itten omen diyela.

J.L. Gutxi gora behera lehen zenbat asto zeuden esne-partitzen edo Merkatura joaten?

B. Hogeitamarren bat bai. Geyenak hala ibiltzen ginen ta.

J.L. Non uzten zenituzten astoak? Ni gogoratzen naiz, nere amona zena baserrikoa zen eta astoarekin joaten ziren Merkatura. Toki batzuk zeuzkaten astoa uzteko.

B. Gu linbizi jarri ginan. Nola esplikatuko nizuke, ba. Arantxa Salaberria, harek paetan daka ta arna jarriya, paetan ta Santo Kristo Elizako paetan. Han lotuta jartzen genun.

P. Bai, bai, kaminuan ixkinan.

J.L. Orduan ia-ia kaminu guztia astoz beteta egongo zen?

B. Bai dena-dena astoz betia eoten zen.

J.L. Gaur egun kotxearekin bezala, lehen astoarekin ibiltzen zineten. Orain poliki-poliki desagertu dira eta dagoeneko zuek zarete azkenak astoarekin. Noski denek, kotxea dute.

B. Peligrua ikaragarriya. Oain kaminua ere peligrusua baita eta ezin da ibilli.

P. Kotxe asko baita oain.



J.L. Orduan zuei ere gutxi falta zaizue astoa uzteko. Esnea partitzeko erabiltzeaz aparte, beste lanik egiten al du astoak?

B. Astoak ze egingo du: etxeke lanak, bai etxeke lanak.

J.L. Nondik ekartzen dituzue astoak? Hemen Euskal Herrian erosten dituzue, edo.

B. Askotan Zumarrako fiestetan, Santa Luzitan, eosi eta ekarri itteittuzte eta hemen saldu itteittuzte ta guk behar degunian, hoyei eosi itten diyegu, tratantiai.

J.L. Noski, astoak ez dira Zumarragakoak izango?

P. Ez, auskalo. Naparrokuak eta nonguak dien. Santander ta.

B. Hortik ekartzen ttuste, perira. Hor 10,15 o 20 eosten ttuzte, ekarri itten ttuzte. Ta geo itten ttuzte mendia biali. Ta geo inork eosi nahi baldin badu, guk hoyei esaten yogu ta geo itten dute menditikan guri ekarri.

J.L. Eta gutxi gora behera zenbat kostatzen da astoa?

B. Astuak, batzuk haundiyak eta bestiak ttikiyak izaten dittuzu.

P. Batek 25 mila duro igual ta bestiak 30 igual ta.

J.L. Zuek zer erosten dezue haundia ala txikia?

P. Guk ttikiya.

B. Karruokin ta ibilli behar danian, haundiya behar izaten da. Baina guk esniakin ta ibiltzeko ttikiya.

J.L. Nola jakiten duzue, itxuraz aparte, ona ala txarra den?

B. Probak in lenbizi. Ekarri ta geo ostikua ematen badu itten dugu entregatu.

J.L. Ostikoak ematen al ditu?

B. Uuu! Ta koska re.

J.L. Ba sekula ez dut ikusi.

B. Ez, Errenteyan, Santosanak horrek e, astuak koska in ta dena, jata...(?)

P. Gaixtuak dia, e.

J.L. Asto horrekin zer, egiten dezue gaiztoa bada?

B. Entregatu.

J.L. Entregatu. Beraz, dirua galdu?

B. Ez, ez, Paatu baino lenuo.

P. Paatu bino lenotik hamabost eguneko terminaziyua, ta ordun probatu.

B. Ta komeni baldin bazaigu, itten dugu paatu, ta guentzako geldittu. Ta ezpagea konforme, itten dugu beai entregatu ta besten bat ekartzen digute.

J.L. Baina oso arraroa izango da, gaiztoa izatea?

B. Izateia tartian zeharo gaiztuak.

J.L. Zuei astoa zuria ala beltza izatea gustatzen al zaizue? Ala ez zaizue inporta? Jendeak badu preferentziarik?

B. Bai, batzuk bai. Baina guk sekulan. Beltza izan, gorriya izan o zuiya izan, ez zaigu inportik. Oain, izan dedilla ona. Obeittu.

J.L. Noblea eta langilea.

B. Bai noblea.

J.L. Beraz, zuek zarete azkenak eta zuek jubilatatu ondoren ez da astorik ikusiko. Pena izango dezue...

B. Bai, pena. Leno konfiantza bazenun astuakin ibiltzeko baina ez dakazu konfiantzikan, kaminu batetik bestea hasi zatte, gotti betti beitu. Eztezu ikusten kruzatzen hasi ta gainian ttuzu kotxiak, ta ez zaittuzte errespetatzen argiya gorriya piztuik baldin bado re. Ez zattuzte errespetatzen. Ta pena haundina horrek emate izu. Pasa itte ia.

J.L. Hemen da Balentina Zabala. Egunero Lezora joaten da bere astoarekin joan eta etorri. Bere astoarekin oso kontent daudela esaten du. Eskerrik asko, Balentina.

J.L. Egia